

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jon Axpe Altube

*Oñati,
Gipuzkoa
(2008)*

Aurkibidea

Biografia



*Elkar Hezi ikastetxeko
ikaslea, hitanoari
buruzko iritzia
jasotzeko
elkarrizketatu dugu,
Iñigo Ugarte
ikaskidearekin batera.
Guraso biak
Oñatikoak ditu; aitag
hika egiteko ohitura
du. Elkarrizketa egin
genionean Batxi-leko
ikaslea zen.*

Zintak

ONA-318

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altolagirre Etxeberria, Maddi - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-05-07
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Hikaren berezitasuna

- **Erref:** ONA-318/003
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:02:36. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoaren berezitasuna euren ikuspuntutik. Hika hizkera tradizionala, herri-nortasuna ematen duena.

2. Hika ez dago galduta Oñatin

- **Erref:** ONA-318/004
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hitanoaren egoera Oñatin. Baserri inguruetan badago hika ondo erabiltzen duen jendea. Gazteak ere ari dira erabiltzeko saiakera egiten. Ez da behar beste erabiltzen, baina ez dago galduta. Mutilek erabiltzen dute batez ere. Emakumezkoen kasuan, oso adinekoak bakarrik entzun izan dituzte hika.

3. Hitanoa ikastetxean

- **Erref:** ONA-318/005
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:06:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ikastetxean irakasle batek hika egiten die. Ikasleen artean izaten dira hika egiteko saiakerak.

4. Futbol entrenamenduetan hika

- **Erref:** ONA-318/006
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:06:56. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Familian, Jonen aitak eta aitajaunak egiten dute hika. Iñigoren familian, berriz, ez da egiten. Futboleko entrenamenduetan jasotzen duela hika gehien dio Iñigok. Mutilek parranda giroan hasten direnean jasotzen dute hika zaharragoengandik; beraiek oraindik esaldi solteak bakarrik.

5. Hika, zakarra?

- **Erref:** ONA-318/007
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:12:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaur egun jada hika egitea ez da lotzen baserritarra izatearekin. Hika polita iruditzen zaie. Nork edo nola erabiltzen duen, batzuetan bortitza egin daiteke, baina elkarrizketan normal erabilita ez da bortitza Jonen ustez. Iñigok uste du hitanoa hizkera zakartzat edo "kasero"tzat hartzeak izango zuela zerikusia nokaren galeran.

6. Hitanoaren genero-bereizketa I

- **Erref:** ONA-318/009
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hitanoak generoa bereizten du. Horrez gain, desoreka handia dago tokaren eta nokaren artean. Forma bakarra erabiliko balitz hika, ikasteko errazagoa litzateke eta inklusiboagoa. Jonen ustez egokiagoa litzateke aukera hori hitanoa guztiz galtzea baino.

7. Hitanoaren genero-bereizketa II; noka arrotza

- **Erref:** ONA-318/011
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:16:13. **Bukatu:** 00:17:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hitanoak genero-bereizketa egiten duenez eta toka gehiago entzuten denez, Jonek agian tokaren alde egingo luke, hitanoa gal ez dadin. Eskolan egin dituzten saioetan noka landu dute batez ere eta arrotza egiten zitzaien, ia inoiz entzun gabe zutelako.

8. Noka berreskuratzeko interesik bai?

- **Erref:** ONA-318/014
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:19:01. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Noka berreskuratzea aberasgarria ikusten dute. Mutilek toka era naturalean ikasten dute Oñatin, baina noka ikasteko, ahalegin berezia egin behar. Norbere gain dago interesa jartzea eta saiatzea. Baina inguruan ez dute ikusten noka ikasteko eta erabiltzeko interes berezirik.

9. Hika gaztetxotatik eskolan landu behar litzateke

- **Erref:** ONA-318/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:21:41. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika berreskuratzeko bideak; eskolan lantzea lagungarria litzateke. Hala ere, gaztetxoagotan hasi beharko liratekeela eskolan irakasten iruditzen zaie, jada Batxilergoan hizketa-ohiturak errotuago daudelako eta beste kontu asko izaten dituztelako buruan.

10. Hitanoaren "erabilera-arauak" malgutzearen alde

- **Erref:** ONA-318/020
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:29:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoaren "erabilera-arauak" malgutzearen alde daude, hikari eusteko baldin bada. Arau horiek sortu ziren garaia eta gaur egungoa ezberdinak direla dio Jonek. Errespetuz jokatzeko eta elkarriketa kidearen oniritzia izatea dela kontua uste du Iñigok.

11. Hikaren erabilerari lehentasuna, ez zuzentasunari

- **Erref:** ONA-318/023
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:29:57. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoaren zuzentasuna garrantzitsua da, baina gaur egun hikak duen egoera ikusita, beraiek erabilerari emango liokete lehentasuna eta ez zuzentasunari.

12. Hikako esaldi solteak erabiltzeko ohitura

- **Erref:** ONA-318/027
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:33:21. **Bukatu:** 00:34:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Egunerokotasunean ez dute elkarrikketa osorik hika egite, baina hikako esaldi solteak erabiltzen dituzte. Iñigok "Ze xauk?" eta "Ze habil?" esateko ohitura handia du. Jonek, berriz, esaldiak hika hasteko ohitura duela dio, nahiz eta gero agian hanka sartu edo zukara pasatu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com